

6. OKUPAZIO-TASA

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

20 eta 64 urte arteko pertsona okupatuaren proportzioa da, adin horretako biztanle guztiei dagokienez.

Unitateak

Ehunekoa

Datuen urte-tartea

2004tik 2013ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Oharrak

Emaitzak 20 eta 64 urte arteko biztanleenak dira, eta sexuka bereizita daude.

7. BARNE-GASTU GORDINA I+Gb-n

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

Ikerketan eta Garapenean dagoen barne-gastu gordinaren barruan dago I+Gb-n egiten den enpresa-gastua, I+Gb-n egiten den goi-mailako hezkuntza-gastua, I+Gn egiten den gastu publikoa eta irabazi asmorik ez duen sektore pribatuaren I+G gastua.

Unitateak

Milaka euro.

Datuen urte-tartea

2004tik 2013ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Oharrak

Adierazleak I+Gn egiten diren funtsezko inbertsioak ebaluatzen ditu; inbertsio horiek etorkizuneko lehiakortasuna bultzatu eta, ondorioz, BPGren hazkundera dakarte.

I+Gn eginiko gastua ezagutzan oinarritutako ekonomia baten hazkunde ekonomikorako eragile nagusietako bat da. Ondorioz, I+Gn eginiko gastuaren adierazlean dauden joerek adierazle funtsezkoak eskaintzen dituzte, EBko lehiakortasunari eta etorkizuneko aberastasunari dagokienez.

Ikerketan eta Garapenean egiten den gastua ezinbestekoa da ezagutzan oinarritutako ekonomia batera igarotzeko, baita produkzio-teknologiak hobetu eta hazkundera bultzatzeko ere.

8. BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN EMISIOAK

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

Kyotoko protokoloan aintzat hartutako sei berotegi-efektuko gasi dagozkien CO₂-ren tona baliokideen batura neurtzen du: karbono dioxidoa (CO₂); metanoa (CH₄); oxido nitrosoa (N₂O); hidrofluorokarbonoen familia (HFC); perfluorokarbonoen familia (PFC); eta, sufre hexafluoruroa (SF₆).

Oinarritzat hartzen da 2005eko berotegi-gasen emisioen kopurua. Eraitza hori 100 gisa hartzen da, eta 2004tik eta 2013rako eraitza eskaintzen da, 100 gisa hartutako balioari dagokionez neurtutako emisioen aldakuntza-ehuneko gisa.

Unitateak

Ehuneko

Datuen urte-tartea

2004tik 2013ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Energiaren Euskal Erakundea (EVE)

Oharrak

Aztertu egiten du zein neurritan gertatzen diren Bizkaiko Lurralde Historikoan berotegi-efektuko gasen emisioak.

Kyotoko Protokoloarentzat berotegi-efektuko gasak dira: karbono dioxidoa (CO₂), metanoa (CH₄), oxido nitrosoa (N₂O) hidrofluorokarbonoak (HFCs), perfluorokarbonoak (PFCs) eta sufre hexafluoruroa (SF₆). Karbono dioxidoak (CO₂) hartzen ditu EAEn egiten diren berotegi-efektuko emisioen % 86. Ondoren, metanoa dator (CH₄), %10etik behera; metanoa zabortegietako eta abeltzaintza-sektoreko emisioetan aurkitzen da batik bat.

9. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KUOTA ENERGIAREN AZKEN KONTSUMO GORDINEAN

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

Energia berriztagarrien iturrietatik datorren elektrizitatea honela definitzen da: energia berriztagarrien iturrietatik sortzen den elektrizitatearen arteko eta elektrizitatearen azken kontsumo gordinaren arteko erlazioa.

Energia berriztagarrien iturrietatik sortutako elektrizitatea, batetik, zentral hidroelektrikoetatik sortutako energia da (ponpaketa izan ezik), eta, bestetik, biomasatik/hondakinetatik, haizetik, eguzki-instalazioetatik eta geotermikatik sortutako elektrizitatea.

Unitateak

Ehunekoa

Datuen urte-tartea

2004tik a 2013ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Energiaren Euskal Erakundea (EVE)

Oharrak

Energia mota honen erabilera garrantzitsua da, erabilerak eta kontsumoak ez dutelako ekartzen baliabideen murrizketa edo haien potentzialaren murrizketa, giza denbora-eskala batean.

10. ENERGIA PRIMARIOAREN KONTSUMOA

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

Energia primarioaren kontsumoa kontsumitutako baliabide energetikoen kantitate osoa da, zuzenean kontsumitua edo beste energia mota bat bihurtzeko erabilia. Energetikoak ez diren erabilerak salbuesten dira (adibidez: errekuntzarako erabiltzen ez den gas naturala, produktu kimikoak fabrikatzeko baizik).

Oinarri gisa hartzen da 2005ean kontsumitutako energia primarioaren kantitatea.

Eraitza hori 100 gisa hartzen da, eta 2013 urte arterainoko eta hurrengo urteetarako eraitza eskaintzen da, 100 gisa hartutako baliori dagokionez neurtutako emisioen aldakuntza-ehuneko gisa.

Unitateak

Ehunekoa

Datuen urte-tartea

2004tik 2013ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Energiaren Euskal Erakundea (EVE)

Oharrak

Energia primarioa inolako eraldaketa izan ez duena da, energiaren kontsumoak/eraldaketa/garraioak beti baitakartzate galerak. Energia primarioaren neurketak eskatzen den energia osoaren kopurua zein den ezagutzen laguntzen digu.

11. AZKEN ENERGIAREN KONTSUMOA

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

Energiaren azken kontsumoa industriara, garraiora, etxebizitzetara, zerbitzuetara eta nekazaritzara bideratzen den energia guztia da (energiaren eraldaketarako sektoreari eta energiaren berezko industriei bideratzen zaiena salbuesten da).

Oinarri gisa hartzen da 2005ean kontsumitutako azken energiaren kantitatea.

Emitza hori 100 gisa hartzen da, eta 2013 urte arterainoko eta hurrengo urteetarako emitza eskaintzen da 100 gisa hartutako baliori dagokionez neurtutako emisioen aldakuntza-ehuneko gisa.

Unitateak

Ehunekoa

Datuen urte-tartea

2004tik 2013ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Energiaren Euskal Erakundea (EVE)

Oharrak

12.ESKOLA-UZTE GOIZITIARRAREN TASA

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

Gehienez, bigarren hezkuntzako lehen etapa osatu duten eta ondoren hezkuntzan jarraitu ez duten 18 eta 24 urte arteko biztanleen ehunekoa neurtzen du.

Unitateak

Ehunekoa

Datuen urte-tartea

2004tik 2013ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Oharrak

Emaitza murrizteak duen garrantziak ez du soilik eragiten kualifikazio-maila handiago bat lortzeko ezintasunean, baizik eta gizarte-bazterketaren arriskuan, ondo ordaindutako enplegu bat lortzeko aukeren murrizketekin lotuta baitago.

13.GOI-MAILAKO HEZKUNTZA-MAILA

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

30 eta 34 urte arteko biztanleak (Guztira, emakumeak eta gizonak), unibertsitate-hezkuntza edo baliokidea arrakastaz osatu dutenak.

Unitateak

Ehunekoa

Datuen urte-tartea

2004tik 2013ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

Oharrak

Emaitzak sexuka banatuta ematen da.

14. POBREZIA- EDO BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK

Adierazle taldea

EUROPA 2020

Definizioa

Adierazleak biztanleen ehunekotan adierazten dira.

Ingeleseko akronimoari esker ezaguna, AROPE adierazlea (At Risk of Poverty and/or Exclusion), pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden biztanleak honako hauek konbinatzen ditu: pobrezia-arriskuan dauden pertsonak, gabezia material larrian dauden pertsonak edo lan-intentsitate oso apala duten etxeetan bizi diren pertsonak (0-59 urte), hau da, hiru adierazleen konbinazioa:

- **Pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden biztanleak:** Pobrezia-arriskuan dauden pertsonak, gabezia material larrian dauden pertsonak edo lan-intentsitate oso apala duten etxeetan bizi diren pertsonak (0-59 urte).

- **Lan-intentsitate oso apala duten etxeetan bizi diren biztanleak:** % 20an finkatutako dagoen mailatik beherako lan-intentsitatea duten etxeetan bizi diren pertsonak.

Etxeke lan-intentsitatea erlazio honi dagokio: batetik, lan egiteko adinean dauden etxeke kideak zenbat hilabetetan lan egiten duten diru-sarreraren erreferentziarako urtean, eta, bestetik, etxe bereko kideek, teoriarik, lan egin zitzaketen hilabeteen kopuru osoa. Lan egiteko adinean dagoen pertsona bat 18 eta 59 urte arteko pertsona bat da (ez 18 eta 24 urte arteko ikaslea). Adierazlearen kalkuluaren kanpo daude haurrak, 25 urtetik beherako ikasleak edo/eta 60 urte eta gorakoak soilik bizi diren etxeak.

- **Gizarte-transferentziak egin ondoren pobrezia-arriskuan dauden biztanleak:** Adierazle honetarako finkatu den pobrezia-atalasea eskuragarri dagoen errenta nazional baliokidearen erdiko balioaren % 60 da.

- **Gabezia material larrian dauden biztanleak.** Honako egoera hauetako lauri, gutxienez, aurre egiteko baliabideak ez dituzten pertsonak dira: i) alokairua eta faktura arruntak ordaintzeko, ii) etxebizitza behar bezala berotzeko, iii) ustekabeko gastuei aurre egiteko, iv) haragia, arraina edo proteina baliokideak aldi behin jateko (txandakako egunak), v) astebeteko oporrak etxetik kanpo igarotzeko, vi) autoa izateko, vii) garbigailua izateko, viii) koloretako TB izateko, edo ix) telefonoa izateko.

Unitateak

Ehunekoa

Datuen urte-tartea

2004tik 2012ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saila

Oharrak

- Honela, aintzat hartzen dira pobrezia-erantzaren ezaugarri guztiak.
- Beharrezkoa da adieraztea, kalkulua egiteko orduan, horietako egoera bat baino gehiago jasaten duten pertsonak behin bakarrik hartu direla kontuan.